



# GURASOENTZAT SAIOAK

## Deskribapen eta izen emateak

Kuku! Emozio programa

Sexu heziketa

Sare sozialak, bideo jokoak, pornografia...nola lagundu gure seme-alabak?

Aurten ere badira gurasoentzat zuzendutako hitzaldi/hausnarketa saioak. Hona laburpentxoak eta izena emateko aukerak.

## Udaleko Hezkuntza Sailarekin elkarlanean

Azpeitiko Udaleko Hezkuntza Sailarekin elkarlanean hainbat saio antolatu dira haur eta nerabeen gurasoentzat. Ardatz bezala "SARE SOZIALAK, BIDEO JOKOAK, PORNOGRAFIA...NOLA LAGUNDU GURE SEME-ALABAK?" hartuta, ondorengo saioen bitartez laguntzen saiatuko dira adituak.

**SAIO IREKIAK (3 saio):**  
aforo kontuak direla eta, LHko gurasoek izango dute lehenetasuna

### SAIOA 1

#### ZER BEHAR DAUDE HORREN GUZTIAREN ATZEAN? NOLA LAGUNDU GURE SEME- ALABAK?

Gidaria: Luis Legorburu

Edukia: **Teknologia berriak: dibertsioa ala babeslekua ?**

- Pantailekiko menpekotasuna.
- Pantailekiko menpekotasunaren adierazleak.
- Pantaila babesleku: gabezia emozionalak "estaltzeko" modua.
- Hutsune emozionalaren arrazoia.
- Aldaketarako estrategiak.



Berdura  
Plazako areto  
nagusia

Izen-ematea: otsailaren 24rako [hemen](#).

### SAIOA 2

#### GURE SEME -ALABA PANTAILA AURREAN BIZI AL DA?

Gidaria: Hazkunde Elkarte

Edukia: **Orain inoiz baino gehiago, gure seme-alaba pantaila aurrean bizi al da?**

- IKTen erabilera Covid garaian.
- Bideojokoak: abantailak, arriskuak eta autobabeserako jarraibideak.
- Sare Sozialak: abantailak, arriskuak eta autobabeserako jarraibideak.
- IKTen erabilera egokia sustatzeko gomendioak.
- Prebentzioa: bizitzarako trebetasunak.



Berdura  
Plazako areto  
nagusia

Izen-ematea: martxoaren 3rako [hemen](#).

Gidaria: Arremanitz kooperatiba

Edukia: Nire seme/alabak pornoa ikusten al du? Nola hitz egin gaiaren inguruan? Zein jarrera hartu? Zein baliabide eta estrategia erabili ditzaket?

Gure seme-alabek gero eta goizago dute Internetarako sarbidea, eta horrekin batera, gure kontroletik kanpo dauden eduki mordoa dute eskura, tartean pornografia. Pornografia geure seme-alaben sexu-hezitzailea izatea nahi ez badugu, bere eraginari aurre egiteko estrategia eta baliabide eraginkorrak partekatu beharko ditugu.

Aldi berean, harremantzeko sareak on-line eszenatokira igaro dira, eta honek, plano analogikoko arrisku batzuk desagertzearekin batera, arrisku berriak aurkeztu dizkigu.

Ondorioz, plano digitaleko harremanak ere, Tratu Onetan oinarritzeko strategiak behar ditugu.

Aipatutako guztia konfiantzaz eta segurtasunez egitera heltzeko, saioetan gaiari helduko diogu gogoeta eta elkartruke kolektiboaren bitartez.

Izen-ematea: martxoaren 10erako [hemen](#).



Berdura  
Plazako areto  
nagusia

## *Ikastolen Elkarteak bideratua*



HHKO GURASOENTZAT

### KUKU GURASO ESKOLAKO BIGARREN SAIOA

Gidaria: Ikastolen Elkarte

Edukia: Etxean hauren emozioak nola landu eta kudeatu azalduko digun hitzaldia. Ikastoletan abian jarri den Kuku Emozio programaren barruan kokatzen da familiekin egin nahi den lanketa. Oinarritzko emozioak lantzeko hezkuntza programa da Kuku eta ikastola eta familia arteko lankidetzan oinarritzen da. Guraso eskola honetan oinarritzko emozio hauen inguruko orientabide batzuk emango dira eta familietan hauek lantzeko estrategia, baliabide eta jolasak eskaini. Emozioak garatzen eta lantzen diren lehen testuingurua familia da eta gurasoak erreferente garen heinean, hauren eredu bilakatzen gara baita emozioen kudeaketan. Kasu honetan, zehazki Poza eta Sorpresa landuko dira.

Izen-ematea: otsailaren 21erako [hemen](#).



Bideokonferentzia

## *Arremanitzekin elkarlanean*

LH6KO GURASOENTZAT

### SEXU HEZIKETA

Gidaria: Arremanitz kooperatiba

Edukia: LH 6ko ikasleek sexu heziketaren inguruan egin duten lanaren transmisioa egingo da. Gurasoek dituzten zalantzei arreta jarriko zaie eta gaiarekiko duten ikuspuntua aztertuko da.

Izen-ematea: martxoaren 1erako [hemen](#).



Ikastolan